A4

# FRANCISCO JABIER DE ETXEBARRIETA

(Goyan Bego)

Geure aberria Euzkadi gaurko egunez iñoiz baño gaizkiago erabillia da, zapalduago.

Abere indarra bide dalarik bera menperatua daukaten sasi-agintariak ala nai ta erabaki dutelako.

Gure Erriak ez du il nai, bizi nai du ta biziko bada eriotzaren atzaparrak lepo-lepotik itotzeko asmoz eta gorrotoz ezarten dioten aurka burruka gordin batean murgildua da.

Illa onen 7 garrenean ETXEBARRIETA'tar XABIER bilbotar 23 urtedun gaztea, mutil ikasia bere ikasiak dirala gizon egiña, da azkenengo il dutena sasi-agintari oyen ordezko poliziak.

Aberria maite zulako, iñolaz ere ontzat ematen etzulako Erri baten eskubideak zuzentza zapaldua ta oinperatuta izatea diktadura baten oñetako aztunez, bizitza bera eskeiñi dio aberria'ri.

Lenago ainbat eta ainbat abertzale jauzi diran bete bear illara larri ortan sartzen da gazte onen izena ere.

Bizitzan bera ezagutu duten Paris'eko lagunak ta ostantzeko abertzale mordoska batek ontzat emanik bere animaren aldez eraldu dute

Meza bat illa onen 30 garrenean igande arratzaldeko
zazpiretan Eskual-Etchean, 10, rue Duban.Paris XVI.

Erdu gaitezan bertara geure otoiz beroa eskeiñiaz. Bide batez izan gaitezan esku zabal bere etxekoak izan dezaten diru langutza apur bat ere.

ooOoo

En nuestro Pueblo el problema de la libertad nacional vibra cada día con más fuerza. El Estado policía del franquismo pretende ahogar todo sentimiento nacionalista vasco.

No repara en medios para su obra de genocidio. Cárceles repletas de abertzales sometidos a torturas inhumanas, los derechos del hombre más elementales pisoteados, negación a los ciudadanos de sus derechos de reunión, expresión, de libre circulación, es decir guerra sin cuartel.

En esa lucha de violencia que a nuestro Pueblo somete, los vascos conscientes porque aborrecen la iniquidad y la injusticia responden como un gombre y así el 7 de este mes ha caído muerto Francisco Xabier de Etxebarrieta. Joven de 23 años, hombre ya hecho por sus estudios se ha unido a la larga hilera de los que han sabido ofrecer su tributo a la patria.

Los amigos quen vida le han conocido,hoy residentes en París,unidos con otros grupos organizan una Misa en la capilla de Euskal-Etchea, 10 rue Duban.Paris XVI, el domingo día 30 de junio a las siete de la tarde ofrecida por el eterno descaso.

Asimismo seamos benévolos para ofrecer a sus familiares una pequeña ayuda pecunaria simbólica.

París, junio de 1968.

Agur Jesuren Ama,
Birjiña Maria
Agur itxasoko Izar
Dizdirazalia,
Agur zeruko Eguzki
Pozkidaz betia
Agur pekatarien
Kaya ta estalpia.

-2-

Agur gizonen Ama
Zeruko Erregiña
Ama gozo txit maite
Oberik eziña.
Zugandik joatea
Gauza da samiña
Agur nere biotzeko
Poz eta atsegiña.

-2-

Baña zugandik alde
Biotzak ezin du
Zuregana dijoa
Zugan bizi nai du.
Birjin berdin gabea
Onetsi nazazu
Agur, Ama nerea
Agur, agur, agur.-

## OGI ZERUTIK

OGI ZERUTIK
ETORRIYA
ZU ZERA GURE
POZ GUZTIYA.

Bildots santua
Ara emen
Munduko gaitzak
Kentzearren,
Sagrarioan
Non dagoen
Lurra zeruaz
Bat egiten.

OGI ZERUTIK ...

- 2 -

Misteriorik aundiena
Jauingoikoaren oroimena
Gozotasunik gozoena
Gizonentzako dagoena.

- 2 -

Gauza guzien Egillea
Zeru ta lurren Erregea
Geure artean bizitzea
Zer zoriona dan gurea.-